

## ARRASATEKO UDALBATZARI

**Talde politikoa EH BILDU**  
**Udala Arrasate**

Goian adierazitako udalerriko talde politikoaren zinegotziek, eztabaidatzeko, eta hala balegokio, onesteko, hurrengo **MOZIOA** aurkezten dute:

### **EUSKARAREN AURKAKO ERASO JUDIZIALAREN AURREAN EH BILDUREN MOZIOA**

#### **ZIOEN ADIERAZPENA**

2023 urte hasi berrikan EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak euskararen aurkako epai bat eman du berri. Zehazki, Barakaldoko Udalaren erabaki bat baliogabetu dute CCOOen eskariz, eta azpikontrataturako zerbitzuetan gutxieneko euskara maila eskatzearen aurka agertu dira epaileak. Erabaki dute euskara ezin dela langileentzako betekizun gisa ezarri udalerriko horretako kultur zerbitzuez arduratzeko enpresa bat kontratatatzeko lehiaketan.

Hau ez da EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak emaniko tankera honetako lehen epaia. Aurrez ere, euskara sustatzeko udal administrazioen ekimenak baliogabetu izan dituzte epaitegiek, besteak beste, 2018an Lasarte-Oriako Udalaren haurrei zuzendutako ekintza kulturalak diruz laguntzeko ordenantza, 2021ean Iruneko Udalaren udaltzaingo prozesuan ezarritako hizkuntza eskakizunak, Atarrabiako Udalaren erabakia lantalde organikoko lanpostu guztietan euskara jakitea meritua izateko erabakia, 2022an Laudioko Udalaren langile baten hizkuntza eskakizunaren erabakia,...

Euskararen aurkako epaiak izan dira, eta hizkuntza-politikaren judizializazioaren baitan ulertu beharreko erabakiak. Izan ere, egun ezarrita dagoen ofizialtasunaren, eta ofizialtasunaren ondorio juridikoen irakurketa are murriztagoa egiten ari dira epaien zein jurisprudentiaren bidez. Bide honetatik, euskaldunon eskubideak are gehiago murriztu nahi dituzte ofizialtasunaren irakurketa murriztago baten bidez. Herritarrek udal zerbitzu publikoak euskaraz jasotzeko eskubidea dute, eta erakunde publikoei, guztiei, baita judizialei ere, eskubide horren bermatzaile izatea dagokie.

Baina epai hau ez da euskararen aurkakoa soilik: EAEko araudiaren eta udal autonomiaren aurkakoa ere bada. Batetik, 2/2016 Euskadiko Tokiko Erakundearen Legea urratzen du. Lege hark udalari hizkuntza politikan erabakiak hartzeko eskumenak ematen dizkigu, eta legea garatzen duen 179/2019

# ehbildu

Dekretuak, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa, oso argi uzten ditu euskara lehenesteko bideak, arrazoi askorengatik. Bada, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, Tokiko Erakundeen Legeak hizkuntza politikan udalen eskumenak argi zehazten ditu, eta 2019ko dekretuak ere udalei euskara lehenesteko beharra ezartzen die, hizkuntzaren normalizazioan urratsak emateko.

Hori dela eta, hurrengo proposatzen dugu:

## MOZIOA

Arrasate-ko udalbatzak honako erabaki hau hartzen du:


1.- Gogor salatzen dugu epaitegiek abiatu duten hizkuntza-politikaren judizializazioa, eta euskararen aurka ematen ari diren epaiak, azkena EAEko Auzitegi Nagusiak Barakaldoko Udalaren aurka emandakoa.

2.- Euskal Herriko administrazioei, epaitegiei, eragile politiko, sindikal eta sozialei herritarren hizkuntz eskubideak bermatu ditzatela eta euskararen sustapenaren alde egin dezatela eskatzen diegu.

3.- Udal honek, legedia betez, ondorengo konpromisoak hartzen ditu:

Udal zerbitzuetan herritarrei lehen hitza euskaraz egitea bermatuko du  
Zerbitzu publiko guztiak euskaraz eskaintzea bermatuko du  
Udal funtzionamendu osoa EAE-ko bi hizkuntza ofizialeetan bermatzeko urratsak emateko plana gauzatuko du.

Arrasate 2023/02/01



KEPA URTEAGA GARCIA

72.450.272 L